2. mailako Hirigintza: sarrera

HIRI-ANTOLAKUNTZAKO PLAN BEREZIA (II)

10. ariketa



Plan Berezia garatzeko eremua — Hirigintza-parametroak kalkulatzeko eremua

Aurreko ariketako Bergarako Unzeta parkean **Hiri-Antolakuntzako Plan Berezi** ezberdin bat landuko du talde bakoitzak, honako ezaugarriak betez:

- Aurrekoan bezala, etxebizitza-erabilera izango da nagusi.
- Alde Zaharreko eraikinak ezin dira eraitsi. Gainontzekoak bota daitezke (ordenazioz kanpo daudela uste bada), baita mantendu eta erabilera aldatu ere (posible izatekotan).
- Ekipamendu publikoak ez diren eraikinen lurzoruaren mailaren gaineko eraikigarritasuna: **1,5 m^2/m^2**.
- Ekipamendu publiko bat (zehaztu erabilera eta neurria: eredu bat erabili).
- Kaleetaz aparteko espazio libre bat (plaza edo berdegunea), gutxienez eremuaren azaleraren %15ekoa.
- Eremua mugatu beharko da, haren azalera azalduz.
- Etxebizitza-tipoa(k) azaldu beharko dira (eredu bat edo batzuk erabili).
- Inguruko eta proposatutako antolakuntzetako komunikazio-sareen azterketa egin beharko da, 0,4 m^2/m^2-ko eraikigarritasunarekin eta 1,5 m^2/m^2-rekin egindako bi proposamenak alderatuz.

Bestalde, goiko eskuineko irudiko eremuaren **hirigintza-parametroak** kalkulatuko dira, bi eraikigarritasun ezberdinekin egindako antolakuntzak alderatuz. Honako parametroak adieraziko dira: Eraikigarritasuna (azalera —m^2— eta koefizientea —m^2/m^2—), betetze edo okupazioa (azalera —m^2— eta ehunekoa —%—) eta dentsitatea (—etxebizitza/ha—, horretarako etxebizitza edo etxebizitzen azalera zehaztu beharko dela). Ez ahaztu eremua mugatzen eta haren azalera adierazten.

Eskatutakoa azaltzeko beharrezkoak diren planoak emango dira (kokapen-planoa, oinplantak, ebaketak eta taulak), paperean din A-1 formatuan eta Cdan PDFetan. Gogoratu hobe dela plano gutxi baina osatuak egitea.

Apirilaren 7ko klasearen hasieran emango da bukatuta

Donostian, 2009ko martxoaren 24an
Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño